



Registro de entrada

Día: 02/05/22

Oficina: 3599 - SEG - D. SERVICIOS SEGURIDAD

Destino: 2287-02120000-ARAUBIDE JURIDIKOAREN, ZERBITZUEN ETA HAUTESKUNDE PROZESUEN ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN DE RÉGIMEN JURÍDICO, SERVICIOS Y PROCESOS ELECTORALES

SEG - D. SERVICIOS SEGURIDAD

Núm. registro	Fecha de registro	Origen	Remitente	Asunto	Resumen
202200000294436	02-05-2022 10:57:53	092-DBEB / AVPD	AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS	8-DOCUMENTACIÓN	INFORME ELABORADO POR LA AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS SOBRE EL ANTEPROYECTO DE LEY DE PROTECCIÓN DE DATOS

DILIGENCIAS: SE HAN RECIBIDO TODOS LOS DOCUMENTOS RELACIONADOS EN ESTA HOJA DE REGISTRO. DOCUMENTACION TRAMITADA SEGÚN EL ARTICULO 38.4 FR LA LEY 30/92. PARA CUALQUIER INCIDENCIA DIRIJANSE DIRECTAMENTE AL INTERESADO.



Fdo.:



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

		Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Agencia Vasca de Protección de Datos	
27 ABR 2022			
Nº	551	0215	Zkia.
IRTEERA - SALIDA			

Goiatz Aizpuru Lizarraide
Directora de Régimen Jurídico, Servicios
y Procesos Electorales
VICECONSEJERÍA DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
GOBIERNO VASCO-EUSKO JAURLARITZA

Erref. IL22-001
Ref.

GAIA Lege aurreproiektua, Datu pertsonalak babesteari buruzkoa
ASUNTO Anteproyecto de Ley de Protección de Datos Personales

Honekin batera bidaltzen dizut Agentzia
honek egindako Datu pertsonalak babesteari
buruzko Lege aurreproiektuari buruzko
txostenaren euskarazko bertsioa.

Adjunto le remito versión en euskera del
informe elaborado por esta Agencia sobre el
Anteproyecto de Ley de Protección de Datos
Personales.

Adeitasunez.

Atentamente.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 27a.

Vitoria-Gasteiz, 27 de abril de 2022



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Dokumentu elektronikoaren paper-kopia saila da
Es copia simple en papel de documento electrónico

Pedro Alberto González González
Idazkari nagusia / El Secretario General



2022 MAI. 02

Iz./Fdo.:



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Dokumentu elektronikoaren paper-kopia soils da
Es copia simple en papel de documento electrónico

2022 MAI; 02

Iz./Fdo.:

IL22-001

DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

AURREKARIAK

1. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariak Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eskatu dio Datuak Pertsonalak Babesteko Legearen aurreproiektuari buruzko txostena egin dezala.
2. Aurreproiektuaren zirriborroarekin batera honako agiri hauek doaz: aurreproiektua prestatu aurretiko kontsulta publikoa; aurretiko kontsulta publikoari buruzko iruzkinak; lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren agindua, Datu Pertsonalak Babesteko Legearen aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera ematea erabakitzen duena; azalpen-memoria; memoria ekonomikoa; 2022ko urtarrilaren 31ko Agindua, lege-aurreproiektua aldeztu aurretik onartzea erabakitzen duena; aurreproiektuaren 1. bertsioa; Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren txosten juridikoa; aurreproiektuaren 2. bertsioa eta Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariaren ebazpena, aurreproiektua jendaurrean jartzen duena.
3. Azalpen-memorian arretaz aztertzen dira aurreproiektuaren beharrizan eta egokitasuna eta edukia, eta artikulua ere zehatz-mehatz aztertzen dira. Segurtasun Sailaren txosten juridikoa xehetasunez aztertzen dira proiektuaren funts objektiboa eta edukiaren egokitasuna, gaur egun dagoen esparru juridikoa kontuan hartuta. Aurreproiektuaren 2. bertsioan txosten juridikoa egiten dituen ekarpenak jasotzen dira; beraz, gure txostenean azken bertsio hori hartuko dugu ardatz.

SARRERA

1978ko Konstituzioa aitzindari izan zen datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea aintzatetsi eta aldeztuari dagokionez. Konstituzioaren 18.1 artikuluan azaltzen den intimitaterako eskubideak ezin zuen barnean hartu informazio pertsonala, eta beharrizan horretatik sortu zen oinarritzko eskubide horren aintzatespen eta aldeztua. Kontua ez da informazio bat gordetzea, pertsona batek ez duenean nahi besteek jakin dezatela; aitzitik, helburua da pertsonen euren datuak kontrolatu eta erabili ahal izan ditzatela, datu horiek nor dauzkan eta zertarako erabiltzen dituen jakin dezatela. Espainiako Konstituzioa, Portugalgo Konstituzioaren atzetik, aitzindari izan zen, 18.4 artikuluan agintzen duenean mugatzeko informatikaren erabilera, ohorea eta norberaren eta familiaren intimitatea bermatzeko, jakina baitzen informatikak zer nolako arriskuak ekar zitzakeen pertsonen pribatutasunerako.

Datuak bitarteko informatikoekin tratatzeak pertsonen eskubideetarako ekar ditzakeen arriskuei aurre egitearen helburu hori betetze aldera indarrean jarri zen

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz - Tel.: 945 016 230 - Faxa: 945 016 231 avpd@avpd.eus

www.avpd.eus



2022 MAI: 02
MAY: 02

Iz./Fdo.:

5/1992 Lege Organikoa, urriaren 22koa, Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatuaren Erregulazioari buruzkoa (LORTAD), zeinak xedatzen baitzuen autonomia-erkidegoek kontrol-agintaritzak eduki ahal dituztela, baina soil-soilik autonomia-erkidegoen beraien Administrazioen fitxategi dagokienez. Geroago, 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babestekoak, lurralde-esparru bateko zein besteko toki-entitateen fitxategiak ere barnean hartu zituen.

Konstituzio Auzitegiak datu pertsonalak babesteko eskubidearen funtsezko eskubidea taxutzen duten kontzeptu, printzipio eta eskubideak lehenengoz irudikatu zituen uztailaren 20ko 254/1993 Epaian eta, funtsean, azaroaren 30eko 292/2000 Epaian. Dioenez, Espainiako Konstituzioaren 18.4 artikuluan intimitaterako eskubideaz bestelakoa eta beregaina den oinarrizko eskubide bat ezartzen da konstituzio-berme gisa, datuen tratamendu automatizatuaren, hau da, informatikaren erabilera legez kontrakoaren ondorioz sortzen diren mehatxuei erantzuteko.

Bestalde, Europako Kontseiluaren 1981eko urtarrilaren 28ko 108. Hitzarmena, datu pertsonalen tratamendu automatizatuari dagokionez pertsonak babesteko dena, datu pertsonalen babesaren esparruan juridikoki loteslea den nazioarteko lehenengo tresna da. Dena dela, Europar Batasunean 1995era arte ez zen onartu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 95/46/EE Zuzentaraua, urriaren 24koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa. Zuzentarau horren bidez bete zen Batasuneko legerian datu pertsonalen babesaren aldetik zegoen hutsunea. Hala ere, Europar Batasunak eskubide hori ez zuen oinarrizko gisa aintzatetsi 2000. urtera arte, hain zuzen ere bere Eskubideen Gutunaren 8. artikuluan.

95/46/EE Zuzentaraua barne-ordenamendu juridikora ekarri zuen abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa, zeinak aurreko legea, LORTAD alegia, indargabetu baitzuen.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Legea onartu ostean, legebiltzar autonomiko gutxi batzuek ezarri zuten legeria gai horretan. Adibidez, 2004an Eusko Legebiltzarrak otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa onartu zuen, Autonomia Estatutuaren 10.2 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari autogobernatzeko erakundeen antolamendu, erregimen eta funtzionamendurako esleitzen dion eskumen eksklusiboa egikaritzuz.

Hala ere, datu pertsonalak babesteko Europako gaur egungo esparrua eratzen duten bi arau berri geroago, 2016ko apirilaren 27an onartu ziren. (EB) 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, eta (EB) 2016/680 Zuzentaraua, 2016ko apirilaren 27koa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, zeinak 95/46/EE Zuzentaraua (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra) indargabetzen baitu, helburu du pertsonen babes maila uniformea bermatzea euren datuak tratatzean, bai eta Batasunaren barruan datu pertsonalak zirkulatzeko oztopoak ezabatzea eta, hala, jarduera ekonomikoa bideratzea. Horregatik, Erregelamendua estatu kideei tarte txikia uzten die arlo horretan araudia ezartzeko, alde batera utzita estatu horietako legeria nazionalari buruz egiten diren aipamenak.



2022 MAI. 02
MAY. 02

Iz./Fdo.:

Europako Erregelamenduak, 2018ko maiatzaren 25etik aurrera Europar Batasuneko estatu kideetan zuzenean aplika daitekeen horrek, alderdi berri ugari ekartzen ditu estatu kideen araudiaren arloan.

Erregelamendu Orokorrek bere aplikazio-eremua Europako herritarren datuekin Batasunaren esparrutik kanpo egiten den tratamendura hedatzen du; datuen kategoria berezi berriak jasotzen ditu, adibidez datu genetikoak eta biometrikoak. Dioenez, adostasuna, datuen tratamendurako oinarri legitimo gisa, adierazpen zalantzarik gabe batez edo egintza positibo argi batez eman behar da. Gainera, Erregelamendu Orokorrek interesdunen eskubide gehiago azaltzen ditu, eta datuen babesari aplikatu beharreko printzipio berriak arautzen ditu, adibidez gardentasunaren printzipioa eta erantzukizun proaktiboaren printzipioa. Erregelamendu Orokorren beste alderdi berri bat da nazioarteko transferentzien esparruan egiten diren aldaketak, eta horrez gain leihatila bakarraren eta Datuak Babesteko Europako Lantaldearen sorrera; fitxategiak jakinaraztearen eta inskribatzearen betebeharra kentzen da, zehapen-araubidea arautzen da, eta horren haritik Erregelamendua urratzeagatiko zehapen gogorrakoak ezartzen dira, eta gainera datuak babesteko agintaritzen eginkizun eta ahalmenak nabarmen zabaltzen dira.

Datu pertsonalak babesteko Europako eredu berri horren eraginez, hainbat egokitzapen egin behar izan da estatu kideetako zuzenbideetan eta, barne-ordenamendu juridikoari dagokionez, eguneratu egin da 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa, indargabetutako 95/46/EE Zuzentarauaren trasposizioa egitekoa, horren ordean abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa indarrean jarri baita.

3/2018 Lege Organiko berriaren zeregina da, zioen azalpenean adierazten denez, Erregelamendu Orokorren xedapenak garatzea edo osatzea Erregelamendu Orokorrek berak ezartzen dituen tarteen barruan, eta Erregelamendu Orokorrekin bateraezinak diren arauak ordenamendutik ezabatzea. Kontuan izan behar da Erregelamendu Orokorrek berak arautzen duela eskubidearen funtsezko edukia, eta gainera, Europar Batasun osorako araubide osoa eta uniformea ezartzen duela. Hori hala izanik, ez da ulergarria lege horren artikuluetako batzuk lege organiko mailakoak izatea eta gainerakoak, gehienak, oinarrizko baldintzak izatea Espainiako Konstituzioaren 149.1.1 artikuluen babespean emateagatik.

Bestalde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/680 Zuzentarauaren trasposizioa egin da duela gutxi barne-ordenamendu juridikoan (2016/680 Zuzentaruua, zeinak pertsona fisikoen babesari arautzen baitu, agintaritza eskudunek arau-hauste penalak prebenitu, ikertu, detektatu edo epaitzeko asmoz edo zehapen penalak betearazteko asmoz datu pertsonalak tratatzeari eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokionez, eta indarrak gabe uzten baitu Kontseiluaren 2008/977/JAI Esparru Erabakia), maiatzaren 26ko 7/ 2021 Lege Organikoaren, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoaren bidez.

Zioen azalpenak dioenez, lege organiko horrek herritarren eskubideen eta bereziki herritarren datu pertsonalen babes-maila handia lortzea du helburu, Europar Batasuneko gainerako estatu kideek dutenaren pareko babes-maila, alegia, eta, horretarako, zuzentaruaren ezartzen diren arauak txertatzen eta zehazten ditu, esparru juridiko bat ezartzen du zeinak lankidetzaren polizial eta judizial penala errazteko behar den segurtasun



juridikoa emango baitu eta, ondorioz, eginkizunak modu eraginkorragoan betetzeko behar duten segurtasun juridikoa ere eskainiko Segurtasun Indar eta Kidegoei eta Espainiako sistema judicial penal osoari (espetxe-arloa barne).

Lege organiko horretan xedatuta dagoenaren arabera, AEPD eta autonomia-erkidegoetako agintaritzak, zein bere eskumen-esparruen barruan, datu horiek babesteko agintaritzak izango dira, eta legeak arautuko ditu haien ahalmen eta eginkizunak, bai eta estatu kideetako agintaritzen arteko laguntza ere. Gainera, lege horrek xedatzen duenez, agintaritza horietan erreklamatzeko prozedurak 3/2018 Lege Organikoak eraenduko ditu, edo bestela, datuak babesteko agintaritza eskuduna arautzen duen legeak.

Arau-esparru horrek behartuta, Euskal Autonomia Erkidegoak beharrezkoak diren arau-erreformei ekin die, eta beharrian hori betetzera dator txosten honen xede den lege-aurreproiektua, zeinak otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren lekua hartuko duen.

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Dokumentu elektronikoaren paper-kopia soilia da
Es copia simple en papel de documento electrónico

2022 MAI. 02
MAY. 02

III

OHAR OROKORRAK

Iz./Fdo.:

1.- Eskumena

Txosten hau egiten da otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoaren 17. artikuluan Datuak Babesteko Euskal Bulegoari esleitzen zaizkion eginkizunen arabera.

2.- Arauaren xedea

Lege-aurreproiektuaren xedea da, 1.1 artikulua dioenez, datuen babesaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudia egokitzea hainbat lege-arautara: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendura (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen) eta maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikora (arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzkoa).

Halaber, aurreproiektuaren xedea da Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren araubide juridikoa erregulatzea.

Sarreran azaldu da nolako arau-egokitzapenak eskatzen dituzten Erregelamendu Orokorrak eta lehenago aipatu diren bi lege organikoek; bada, orain, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren araubide juridikoa erregulatzeko beharrezkoak hartzeko dugu.

Horren haritik, nabarmendu behar da Erregelamendu Orokorrak datuak babesteko agintaritzei ahalmen eta eginkizun berriak esleitzen dizkiela eta haien araubide juridikoari buruzko arauak ezartzen dituela, baina estatu kideei tarte zabala ematen diela, estatu horien esku uzten baita legez ezartzea datuak babesteko agintaritzak, kontrol-agintaritza bakoitzeko kide izendatua izateko beharrezkoak diren kualifikazioak eta egokitasun-baldintzak, izendapenerako arau eta prozedurak, agintaldiaren iraupena, kargua berriztagarria den ala ez, eta agintaritza bakoitzeko kargudunen nahiz langileen betebeharrak eraentzeko baldintzak, agintaldian nahiz agintaldia amaitu ostean



2022 MAI 07

karguarekin bateraezinak diren egintza, okupazio eta prestazioei buruzko debekuak, eta kargua uzteko arauak; eta horrez gain, legeak arautu beharko du ahalmenak egikaritzeko modua, baita zein prozeduratan esku hartuko den eta langileen eta aurrekontuen araubidea ere.

Era berean, maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoak ~~datuak babesteko~~ agintaritzei, estatukoei edo autonomia-erkidegoei, ahalmen eta eginkizun ugari esleitzen dizkie lege horren esparruaren barruan, eta ezartzen du agintaritzen aurrean erreklamatzeko prozedurak dagokion agintaritzaren legeak ezarriko dituela.

Hain zuzen ere, proiektatutako legeak arautuko du autonomia-erkidego honetako datuak babesteko agintaritzaren araubide juridikoa, arau horiek eskatzen dutenaren arabera; alde horretatik, gaur egungo izena, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, aldatu eta aurrerantzean Datuak Babesteko Euskal Agintaritza izango da; gure ustez, izen horrek datuen babesaren arloko agintaritzaren benetako izaera indartzen du.

III

AURREPROIEKTUAREN AZTERKETA

IZENBURUA

Izenburu horren bidez jakin daiteke, laburbilduta, zein den legearen xedea. Horregatik uste dugu komenigarria dela aurreproiektuaren izenburua berrikustea eta izenburu horretan Datuak Babesteko Euskal Agintaritza jasotzea, otsailaren 25eko 2/2004 Legeak egiten duen bezala, agintaritza horri buruzkoa baita aurreproiektuaren xedea nahiz edukiaren zati handi bat. Horrenbestez, eta agintaritzak oinarrizko eskubidearen bermatzaile gisa duen zeregin garrantzitsua kontuan hartuta, proposatzen dugu etorkizuneko legearen izena «**Datu Pertsonalak Babesteari eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko Legea**» izan dadila.

I. KAPITULUA

I. kapituluak, xedapen orokorrei buruzkoak, bi artikulua dauzka, testua ulertzeko berebizikoak direnak: lehenengo artikulua, xedea arautzen duena, eta bigarrena, aplikazio-eremua azaltzen duena.

Lehenago azaldu denez, **testuaren xedeari** dagokionez datuen babesaren arloan onartutako araudi berriak behartuta autonomia-erkidegoko testua egokitu behar da, zati handi batean jada ez dagoelako indarrean. Gainera, Datuak Babesteko Europako Erregelamendua onartu denetik, kontrol-agintaritzek bultzada handia jaso dute, orain posizio sendoagoa baitute Erregelamendu Orokorrak 57. eta 58. artikuluetan eta maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoak 49. eta 50. artikuluetan esleitzen dizkieten eginkizun eta ahalmenei esker. Horregatik guztiarengatik, ezinbestekoa da Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren araubide juridikoa erregulatzea.

Aplikazio-eremuari gagozkiola, nabarmendu behar da eremu hori izugarri zabaldu dela bi arrazoiarengatik: alde batetik, **eremu subjektiboa** zabaltzen da, horren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-administrazioetako administrazio instituzionala eta sektore publikoa sartzen direlako. Bestalde, gaur egun dagoen **esparru objektiboa** gainditu egiten da, maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoak, arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzkoak azaltzen dituen tratamenduak Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren kontrolpean gelditzen direlako.



Aplikazio-eremuaren aldaketa bikoitz hori egiteaz bat, izaera juridiko pribatuko entitate ugari sartzen dira eta orain arte bazter gelditzen ziren polizia-datuaren tratamenduen kontrola hartzen da; horrek guztiak berebiziko garrantzia izango du Instituzioaren bilakaeran, zeregin horiek behar bezala betetzeko giza-baliabide eta baliabide material nahikoak eta egokiak izan beharko baititu.

II. KAPITULUA

II. kapitulua, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzkoa, testuan luzeena da (3. artikulutik 23.era). Bertan arautzen dira Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren antolaketa eta araubide juridikoa, organoak, ikertzeko ahala, arautzeko ahala, beste eginkizun batzuk eta datuak babesteko beste agintaritza batzuekiko lankidetzak.

Kapitulu horren lehenengo atalak (3. artikulutik 7.era) arautzen ditu agintaritzaren izaera eta araubide juridikoa, ekonomia- eta aurrekontu-araubidea, eginkizunak eta ahalak eta, azkenik, gardentasuna.

Zazpi manu horien bitartez, aurre-legegilea Instituzioaren funtsezko ezaugarri bat nabarmentzen eta bermatzen saiatu da: **independentzia**, alegia. Horren haritik, gogora ekarri behar da Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak, 8.1 artikuluan datuak babesteko oinarrizko eskubidea aldarrikatu ostean, manu horren 3. apartatuan zera deklaritzen duela: datuak babesteko arauen errespetua «agintaritza independente baten kontrolpean egongo da».

Ildo beretik doa Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 16.2 artikulua.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean argi geratzen da datuak babesteko kontrol-agintaritzek zer zeregin daukaten pertsonen eskubideen bermerako sistema indartu behar duten instituzio independente gisa eta, horregatik, agintaritza horien eginkizun eta ahalmenak nabarmen handitzen ditu (DBEOren 57. eta 58. artikulua).

Instituzioaren independentzia hainbat alderditan azaltzen da, adibidez esleitzen zaion **izaera juridikoan**: administrazio-agintaritza independentea da, eta Lehendakariaren bidez erlazionatzen da Eusko Jaurlaritzarekin. Beraz, Euskal Agintaritza Eusko Jaurlaritzarekiko mendekotasun-loturarik gabe eratzen da; aitzitik, berdintasun-egoeran eta harreman-mailarik handiengan eratzen da.

Ekonomia- eta aurrekontu-araubideak, halaber, agintaritzaren izaera independentea agerrarazten du, aurrekontuaren aurreproiektua prestatzen eta onartzen baitu, eta diru-sarreraren artean zehatzeko ahala egikaritzetik ondorioztatzen direnak sartzen baititu. Alderdi horretan, testuan beren-beregi xedatzen da Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren diru-sarreraren emaitza positiboa agintaritzaren erreserbak hornitzeko baliatuko dela, haren independentzia osoa bermatzeko.

Langileen araubideari dagokiolarik, langile horiek funtzionario izan behar dute, eta horrek ere erakundearen independentziari on egiten dio; hain zuzen ere, era berean independentzia hori beste alderdi batean agertzen da: agintaritzak berak zehaztuko du bere lanpostuak betetzeko araubidea, hautaprobek eskakizunak eta lanpostuak betetzeko eta ~~lanbide-sustapenerako~~ prozedurak.



2022 MAI: 02



2022 MAI. 02

Iz./Fdo.:

Alde horretan, eta kontuan hartuta agintaritzak langileria aldetik mugak dauzkala, lege-
aurreproiektuan 2/2004 Legean ezartzen den xedapenaren antzeko bat txertatzea
proposatzen dugu, **Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren ordezkapenez eta
defentsaz Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusia arduratu dadin.**

Eginkizun eta ahalei dagokienez, 6. artikulua beren-beregi jotzen du Erregelamendu
Orokorren 57. eta 58. artikuluetan eta 7/2021 Lege Organikoaren 49. eta 50.
artikuluetan ezartzen diren horietara, bai eta legez esleitzen zaizkion eskumenetara, bide
horretatik Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak egikaritu ahalko baititu beste lege
batzuek esleitzen dizkioten eginkizun eta ahalak.

Gardentasuna hizpide hartuz, Euskal Agintaritza, beste Administrazio Publiko guztiak
bezala, abenduaren 9ko 19/2013 Legean, gardentasunari, informazio publikoa
eskuratze bideari eta gobernu onari buruzkoan ezartzen den publikotasun aktiboko
betebeharraren mendean dago. Hala ere, testuaren 7. artikuluan beste konpromiso
batzuk jasotzen dira, estatuko legean jasotzen direnez gain; manu horretan, prozedura
jakin batzuei amaiera ematen dieten ebazpenak argitara daitezela agintzen da, eta baita
gidalerro orokorrak, nahitaezko txostenak, irizpenak eta onartutako jokabide-kodeak ere.

Horrez gain, 7. artikuluko 3. apartatuak dioenez, informazioa zabaldu aurretik, datu
pertsonalak disoziatu egingo dira, eta gardentasunaren eta informazio publikorako
irispidearen arloan aplikatu beharreko legerian ezarritako mugak errespetatuko dira.
Xedapen horri buruz esan behar da datuak ez direla disoziatu beharko aurreproiektuaren
28. artikuluan aurreikusten diren kasuetan (zehapenak Euskal Herriko Agintaritzaren
Aldizkarian argitaratzea).

Bigarren atalak 8. eta 9. artikuluetan Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren bi
organoak arautzen ditu, hau da, lehendakaria (8. artikulua) eta Kontseilu Aholku-emailea
(9. artikulua).

Lehendakariari dagokionez, testuak berriro ere azpimarratzen du bere eginkizunak
betetzean independentea izango dela, eta inolako jarraibiderik bete beharrik gabe beteko
dituela eginkizun horiek. Independentzia hori indartzen du agintaldiaren iraupenak: bost
urteko agintaldia ez dator bat legegintzaldiaren iraupenarekin.

Lehendakari izateko hautagaia izendatzeko prozedura berria ezartzen da. Alde
horretatik, gure iritziz, oso egokia da botere betearazleaz gain botere legegileak ere esku
hartzea, Erakunde, Gobernantza Publiko eta Segurtasun Batzordearen bitartez, azken
horrek gehiago osoz onartu beharko baitu Eusko Jaurlaritzaren proposamena. Hala,
adostasuna behar-beharrezkoa izango da, eta hori onuragarria izango da instituzioaren
independentziarako. Gainera, batzorde horren gehiago osoa eskatuko da
lehendakariaren kargu-uztea berresteko, kargua uztearen arrazoia bada betebeharren
ez-betetze larria, eginkizunak gauzatzeko ezgaitasuna edo bateraezintasuna. Xedapen
horren bidez saihestu nahi da Agintaritzako lehendakariari kargua uztean
arbitraritasunez jokatzea.

Lehendakaritzaren maila handitu egiten da, eta sailburuordearekin parekatzen da.
Horrek zentzuzkoa ematen du, kontuan hartuta Erregelamendu Orokorrean nahiz
abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta maiatzaren 26ko 7/2021 Lege
Organikoan kontrol-agintaritzari eginkizun garrantzitsuago eta ugariagoak esleitzen
zaizkiela.



2022 MAI: 02

Kontseilu Aholku-emaileak agintaritzaren aholkularitza-organoa izaten jarraituko du, baina kide gehiago izango ditu. Kopuru-igoera hori arrazoizkotzat jo daiteke, kontuan hartzen badugu lurralde historikoen kontseiluan ordezkari bakarra zeukatela eta, gainera, legearen aplikazio-eremua euskal sektore publikora hedatzen denez zuzenbide pribatuko entitateak kontseiluaren osaeran agertu behar direla. Gainera, aurreproiektuak ezartzen duenez, Kontseilu Aholku-emailearen osaeran, ahal dela, bi sexuek % 40ko ordezkari izan beharko dute eta, hala, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkari izan dadila bermatuko da.

Kapitulu horren 3., 4. eta 5. ataletan Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren ikertzeko ahala, arautzeko ahala eta beste eginkizun batzuk arautzen dira.

Gai horretan, ezinbestean nabarmendu behar da Erregelamendu Orokorak eragin handia duela autonomia-erkidegoaren eremuan. Erregelamendu Orokor horrek, jada indargabetuta dagoen 95/46/EE Zuzentarauak bezala, beren-beregi xedatzen du estatu kide bakoitzean datuak babesteko agintaritzak bat baino gehiago egon daitekeela (51.1 artikulua), beren konstituzio-, antolaketa- eta administrazio-egitura islatze aldera (117. kontuan hartuzkoa), eta horrez gain kontrol-agintaritzak guztiek benetan eginkizun eta ahal berberak izan behar dituztela estatu kide guztietan, horien barruan hartuta ikertzeko ahalak, ahal zuzentzaile eta zigortzaileak, eta baimen- eta kontsulta-ahalak, batez ere pertsona fisikoen erreklamazioen kasuan, betiere, alde batera utzi gabe delituak jazartzeko ardura duten agintaritzak (129. kontuan hartuzkoa). Gainera, Erregelamendu Orokorak eskatzen duenez, estatu kideek lege arautuko dituzte datuak babesteko agintaritzak (54. artikulua).

3/2018 Lege Organikoak, berriz, VII. kapituluko I. kapituluan Datuak Babesteko Espainiako Agentzia arautzen du; geroago, titulu horren II. kapituluan datuak babesteko agintaritzak autonomikoei buruz aritzen da. II. kapitulu hori Espainiako Konstituzioaren 149.1.1 artikulua babestean ematen da, baina eskumen-titulu hori ezin da oinarritzko legeriatzat hartu, autonomia-erkidego guztien egoerak ez baitira homogeneoak, eta ez dute zertan hala izan. Autonomia-erkidegoek erabaki ahal dute datuak babesteko agintaritzak ezartzen dituzten ala ez. Hain zuzen ere, gaur egun hiru autonomia-erkidegok soilik daukate halako agintaritzak bat (Kataluniak, Andaluziak eta Euskadik), Madrilgo Erkidegoko Agentzia 2012an desegin baitzen; dena dela, etorkizunean kontrol-agintaritzak berriak sor daitezke, bereziki dena delako autonomia-erkidegoko estatutuek datuak babesteko eskubidea jasotzen badute, hala gertatzen baita Aragoi, Balearretan eta Gaztela-Leonen, nahiz eta agintaritzak propio bat sortzeko aukera Gaztela-Leoneko estatutuan soilik xedatuta dagoen.

Autonomia-erkidegoetako agintaritzen eginkizun eta ahalei dagokienez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, 3/2018 Lege Organikoaren aurreproiektuari buruzko txostena egin zuenean, nabarmendu egin zuen legeak errespetatu behar zituela autonomia-erkidegoetako agintaritzek Estatuaren lurralde-ereduaren arabera beren gain har ditzaketan eginkizunak, zeinak Europako Erregelamenduaren babespean zabaltzen egiten baitira, hasierako testuan halakorik xedatzen ez den arren. Eginkizun horiek dira, hain zuzen ere, eta adibide gisa, jokabide-kodeen eta ziurtapen-mekanismoen sustapenean esku hartzea eta arau korporatibo lotesleak onartzea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, halaber, berretsi zuen legeak zenbait mekanismo ezarri beharko zituela, autonomia-erkidegoetako agintaritzek koherentzia-mekanismoan benetan parte hartuko zutelako bermatzeko, eta orobat Datuak Babesteko Europako Lantaldean ordezkari erkideari proposamenak egiteko gaitasuna bermatzeko. Azkenean, hori guztia



3/2018 Lege Organikoaren testuan agertu zen, jakinda Europako Erregelamenduak berdintasun-plano berean jartzen dituela kontrol-agintaritza guztiak, agintaritza nagusi bat egon zein ez.

2022 MAI. 02

Aurreproiektura itzultzearren, II. kapitulu horren 3. atala ikertzeko ahalari buruzkoa da (9. artikulutik 14.era). Ikertzeko ahala berezko du agintaritzak, oinarrizko eskubidearen bermatzaile den aldetik. Ahal hori aintzatesten dute Erregelamenduak, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoak.

Horri buruz aipatu behar da ahal hori egikaritzeko ez dela zertan erreklamaziorik egon; aitzitik, agintaritzak ikerketa-eginbideak egiteko agindu ahal du motu proprio, edo areago, auditoretza-planak egin daitezela erabaki, oinarrizko eskubidea esparru sektorial jakin batzuetan noraino betetzen den jakiteko.

Ikerketa-jarduerarako eskumena duten langileei dagokienez, zentzuzkoa da funtzionarioak izan daitezela eta agintaritza-agenteen estatusa eduki dezatela eskatzea. Nabarmentzekoa da Erregelamenduak alderdi berri bat ezartzen duela mugaz gaindiko prozedura dela bide, hau da, Batasuneko estatu kide diferenteetako ikuskatzaileek batera jardutea.

Benetan nabarmentzekoa da ikerketa-jardueraren norainokoa, 12. artikuluan arautzen dena. Soil-soilik adierazpen gisa, eta zerrenda mugatu gabe, ikuskapen-jarduerak honako aukera hauetan zehazten dira: lokaletara sartzea, euskarriak eta informazio-sistemak aztertzea, programak edo dokumentuak bidaltzeko eskatzea, aplikazioak exekutatzeko, hartutako neurri teknikoak eta antolakuntzakoak berraztertzea eta abar. Ikuskapen-ahalak modu zabal-zabal batean arautzen dira eta, hori bai, ahal horiek egikaritzean etxebizitzaren bortxaezintasuna errespetatu beharko litzateke, eta kasu horretan adostasun edo baimen judiziala beharko litzateke.

Ikertzeko ahala egikaritzeak ezinbestean esan nahi du tratamendu-arduradunekin lankidetzan aritzea beharrezkoa dela. Horregatik, testuan baiezkotzat jotzen da Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari laguntzeko betebeharra (agintaritzaren eskumen-esparruan ikertzeko beharrezkoa den informazioa eman laguntzea, alegia), eta betebehara hori Administrazio Publikoek ez ezik pertsona fisikoek edo juridikoek ere dutela azaltzen da, haien tratamenduak euskal legean xedatutakoaren mendean egon zein ez. Bereziki beharrezkotzat jotzen da beren-beregi aipatu izana Foru Ogasunak ere, Administrazio gisa, laguntzeko betebeharra duela, betebehara horren mendean dagoela deklaratzeko helburu dela, zerga-arloko araudiari kalterik egin gabe.

3. atalaren amaieran auditoretza-planak arautzen dira. Garrantzi handia duen tresna hori 6. atalean ere aipatzen da; bertan, auditoretzak datuak babesteko beste agintaritza batzuekin batera egin ahalko direla xedatzen da.

Auditoretza-planak funtsezko elementua dira jakiteko araudi bat noraino betetzen den sektore batean, tratamendu-arduradun edo -eragileen esparru jakin batean edo tratamendu jakin batzuei dagokienez. Plan horien emaitza gisa, agintaritzek nahitaez bete beharreko gidalerroak eman ahal dituzte, eta bide horretatik berme handiagoa emango zaio oinarrizko eskubideari.

Testuaren laugarren atala arautzeko ahalari buruzkoa da. Ahal hori manu bakar batean arautzen da, 15. artikuluan, alegia. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren arautzeko ahal hori gauzatze aldera, zirkularrak emateko aukera azaltzen da. Zirkular horietan, euskal agintaritzak Erregelamenduan eta datu pertsonalen babeserako gainerako araudian ezarritakoa aplikatzean duen jardunbidearen irizpideak finkatuko dira.



Izena ikusita besterik pentsa daitekeen arren, arauak dira, ad extra efikazia dutenak, eta arau horiek prestatzean interesdunentzako entzunaldia bermatu beharko da. EHAAn argitaratu ostean, nahitaez bete beharko dira.

II. kapituluko bosgarren atala **Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren beste eginkizun batzuei** buruzkoa da (16. artikulutik 20.era). Horien barruan daude kanpo harremanak, datuen nazioarteko transferentzien arloko eskumenak, jokabide-kodeen arlokoak, ziurtapenaren arlokoak eta prestakuntzaren arlokoak.

Testuak berretsi egiten du autonomia-erkidegoetako agintaritzek **kanpo-esparruan** duten zeregina, zehatzago esatearren euskal agintaritzak duena. Izan ere, azken horrek ezagutza egiaztagarria bildu du urte askoan datuen babesari buruzko Europako eta nazioarteko hainbat biltzarretan parte hartuz; dena dela, testuak gainera esplizituki azaltzen du agintaritzak nazioarteko administrazio-hitzarmenak eta arauemaileak ez diren hitzarmenak egin ahal izango dituela.

Testuan onartzen da euskal agintaritzak eskumenak dauzkala **datuen nazioarteko transferentzien** legitimaziorako tresnak onartzeko, hala nola kontratuetarako klausula-ereduak edo arau korporatibo lotesleak; geroago agerrarazten da agintaritzak zein eskumen dauzkan Erregelamendu Orokorraren bidez txertatzen diren bi elementu berriren gainean: alegia, jokabide-kodeen eta ziurtapenen gainean. Esparru pribatutik datozen figurak dira, baina baliagarriak izan daitezke erantzukizun proaktiboaren printzipioa betetzeko: hain zuzen ere, printzipio horren arabera, arduradunak Erregelamenduko xedapenak bete behar ditu baina, horrez gain, betetzen direla frogatzeko modua izan behar du.

Europako Erregelamenduak bere printzipioak betetzeko moduari dagokionez sartzen duen aldaketaren bidetik, tratamenduaren arduradunen eskura jarri behar dira printzipioak betetzen direla egiaztatzen lagunduko duten tresnak; horregatik, **jokabide-kodeek nahiz ziurtapenek** funtsezko zeregina izan dezakete erantzukizun proaktiboaren printzipioan eta, horrenbestez, halakoak kontrol-agintaritzek onartu behar dituzte, testuaren 18. eta 19. artikuluetan azaltzen denaren arabera.

Datuen babesaren arloko prestakuntzari dagokionez, testuaren 20. artikuluan azaltzen da Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak konpromisoa daukala oinarrizko eskubidearen zabalkundea sustatzeko, herritarrek behar bezala jakin dezaten datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubidea daukatela, eta arduradunek jakin dezaten arau horiek betebeharrak batzuk ezartzen dizkietela.

Xedapen hori egokia eta beharrezkoa da, kontuan hartuta bai herritarrek bai tratamendu-arduradunek gai horri buruz askorik ez dakitela. Gainera, eginkizun hori Erregelamenduak beren-beregi esleitzen die kontrol-agintaritzari (57.1 artikulua, b eta d apartatuak). Halaber, nabarmendu behar dugu testuan aplikazio-eremu subjektiboa handitzen dela, izaera juridiko pribatuko tratamendu-arduradunak jasotzen direlako; horrek behartuta, are zabalkunde-lan biziagoa egin behar da, eta lan hori testuaren memorian lehenetsunezko helburutzat jotzen da.

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Dokumentu elektronikoaren paper-kopia soil da
Es copia simple en papel de documento electrónico

2022 MAI: 02
MAY: 02



2022 MAY 02

Iz./Fdo.:

Lankidetzeta datuak babesteko beste agintaritza batzuekin

Aurreproiektuan Datuak Babesteko Euskal Agintaritza jorratzen duen II. kapitulua aztertzen amaitzearren, arretaz aztertuko dugu 6. atala, datuak babesteko beste agintaritza batzuekiko lankidetzari buruzkoa (21. artikulutik 23.era bitartean).

Datuak babesteko agintaritza batzuen eta besteen arteko harremanen oinarri bakarra ezin da izan eskumenaren printzipioa; aitzitik, osatu egin behar da lankidetzeta instituzionalaren printzipioekin, irizpideen koordinazioarekin eta elkarrentzako informazioarekin. Hain zuzen ere, Espainiako Agentzia eta autonomia-erkidegoetako agentziak hala jokatzeko ari gara eta, horregatik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, 3/2018 Lege Organikoaren aurreproiektuari buruzko txostenean, kritikatu egin zuen legeak Datuak Babesteko Espainiako Agentziari ahalmena eman izana esku hartzeko, kontrol-agintaritza autonomikoek euren eginkizunak betetzeari utziz gero (lege organikoaren 59. artikulua).

Administrazio publikoen arteko lankidetzeta, elkarlan eta koordinazioaren printzipioa urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenaren 3.1k) artikuluan ezartzen da. Lege-proiektuan, printzipio hori beren-beregi agertzen da, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren eta datuak babesteko Estatuko gainerako agintaritzen arteko lankidetzeta instituzionala arautzen denean.

Lankidetzeta hori gauzatzeko, informazio-elkartrukea egingo da, laguntza emango da, auditoretzako eta ikerketako jarduera bateratuak egingo dira eta berariaz eratzen diren lantaldeetan parte hartuko da.

Administrazioen arteko lankidetzaren printzipiora jotzea benetan beharrezkoa da esparru honetan, non askotan pertsonen oinarrizko eskubidea behar bezala bermatzeko kontrol-agintaritzen arteko jarduketa koordinatua beharrezkoa baita.

Tokiko eremutik kanpo, Erregelamenduan jasota dagoen mugaz gaindiko prozedura da kontrol-agintaritza diferenteen arteko lankidetzaren beharrezko adierazteko modurik biribilena, aurrerago azalduko dugunez.

Erakunde arteko lankidetzaren printzipioa aldarrikatu ostean, testuak xehetasunez arautzen du **auditoretza-plan bateratuetan esku-hartzeko** modua, printzipio horren gauzapean den aldetik. Testuaren 14. artikuluan aipatzen diren plan horietan, jarduera-sektore jakin batean oinarrizko eskubidea zein neurritaraino betetzen den ebaluatzen da. Kasu horietan, administrazio-jarduketa burutzeko, ikuskatutako subjektuei edo arduradun jakin bati zuzendutako gidalerroak ezartzen dira.

Baterako planen berezitasuna honako honetan datza: Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak datuak babesteko Estatuko agintaritza batzuekin eta besteekin batera esku hartzea, baita ikerketa-jarduerak egiteko ere; gainera, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari koordinatzaile zeregina esleitzen zaio bere aplikazio-eremuaren mendean dauden arduradun edo eragileak tartean daudenean, eta horrek arrazoizkoa dirudi agintaritza bakoitzaren eskumen-esparrua errespetatze aldera.

Azkenik, testuaren 23. artikuluan mugaz gaindiko prozeduren esparruko lankidetzeta arautzen da; horretarako, 3/2018 Lege Organikoan (61.1 artikulua) jasotako arauak hartzen dira abiapuntutzat, zehazteko **Datuak Babesteko Euskal Agintaritza zein kasutan izango den agintari nagusia edo interesduna**, hau da, tratamendua desberdina bada, eduki, irismen edo helburuen aldetik, arduradun berak Estatuko



gainerako lurraldean egingo lukeenaren aldean.

Manuaren 2. apartatuan, gainera, gogora ekartzen da Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak zein kasutan esku hartuko duen Datuak Babesteko Europako Lantaldearen bileretan.

III. KAPITULUA

Aurreproiektuak III. kapituluan (24. artikulutik 29.era) zehapen-araubidea jorratzen du.

Erregelamendu Orokorra onartzeko arrazoietakoa bat izan zen Europar Batasuneko estatueta zehapen-araubide uniforme arautu behar zela, ordura arte estatu batzuetan oinarrizko eskubideen urraketak zehatu ere egiten ez zirelako, beste estatu batzuetan oso modu diferenteetan zehatzen ziren bitartean.

Erregelamendu Orokorren alderdi berri nagusien artean nabarmendu behar da Erregelamendua urratzeagatik zehapenak gogortu egiten direla. Europar Batasun osoan zehapen-araubidea larriago eta zorrotzago bihurtzen da: isunak gehienez 20 milioi eurokoak izan daitezke edo, enpresa bat denean, aurreko ekitaldiko urteko negozio-bolumen osoaren % 4. Gainera, Erregelamendu Orokorren 58. artikulua ezartzen dituen neurri zuzentzaileen ordean edo haien osagarri moduan ezar daitezke isun horiek.

Hala ere, Europako Erregelamenduak eskatzen duenez, zehapenak banakakoak, eraginkorrak, neurrikoak eta disuasiokoak izango dira, kasu bakoitzaren inguruko gorabehera guztiak kontuan hartuta, eta 83. artikuluan azaltzen diren irizpideak aplikatuta. Gainera, pertsona fisikoei zehapenak ezartzen bazaizkie, kontuan hartu behar dira estatu kideko diru-sarreraren maila orokorra eta pertsonaren egoera ekonomikoa.

Erregelamendu Orokorra arau-hausteak, zehapenen gehieneko mugak eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zehapena zehazteko irizpideak arautzen ditu. Hala ere, ez du arautzen zehapenen graduazioa, ezta arau-hauste eta zehapenen preskripzioa ere. Zein zehapen-araubide aplikatu behar den ere ez. Estatu kideek, halaber, ezarriko dituzte arauak erregelamendua urratzeagatik ezarri ahal diren beste zehapen batzuen arloan.

Erregelamendu Orokorren arau-hausteak ere ez dira tipifikatzen arin, astun eta oso astun gisa; dena dela, beste muga batzuekin zehatu ahal dira: gehienez 20 milioi euro edo urteko negozio osoaren bolumenaren % 4, Erregelamenduak onartzen dituen printzipio eta eskubideak urratzen badira; eta neurri txikiagoan, gehienez 10 milioi euro edo urteko negozio osoaren bolumenaren % 2, betebeharrak formalak eta segurtasun-neurriak ez betetzearen ziozko zehapenak.

Erregelamendu Orokorra ez du ebazten ea Administrazio eta Entitate Publikoei zehapen ekonomikorik ezarri ahal zaien, hori estatu bakoitzak zehaztu behar baitu, eta onartzen du interesdunek eskubidea dutela datu pertsonalen lege kontrako tratamenduaren ondorioz jasandako kalte eta galerengatik kalte-ordaina jasotzeko.

3/2018 Lege Organikoak, bere aldetik, IX. titulu osoan zehapen-araubidea jorratzen du. Espainiako Konstituzioaren 149.1.1 artikulua babespean ematen den artikulua horren bidez, Erregelamendu Orokorra aintzat hartuta, datu pertsonalen babesaren arloko zehapenen sistema garatzen da, jokabideak zehazten dira eta arau-hausteak oso astun, astun eta arinetan bereizten dira preskripzioaren ondorioetarako.

2002 MAR 02



2022 MAI. 02

Iz./Fdo.:

3/2018 Lege Organikoaren aukera Administrazio eta Institutuzio Publikoei zehapen ekonomikorik ez ezartzea da, eta sektore pribatuak horren aurkako kritika gogorrak egin ditu. Neurri horrek, antza denez, hainbat arrazoi ditu sorburu: alde batetik, baliabide publikorik ez egotea eta; bestetik, Administrazioek datuen tratamenduaren ondoriozko onura ekonomikorik jaso nahi ez izatea (datuen tratamendua, XXI. mendeko petrolio). Datuak babesteko araudia urratzen badute ez da interes ekonomikoengatik, baizik eta, gehienbat, maneiatzen dituzten datuen kudeaketa kaskarrarengatik edo, askotan, agerikoa denez bitarteko materialak edo giza baliabideak falta direlako, edo langileei prestakuntza falta zaielako.

Maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoak, berriz, VIII. kapituluan (56. artikulutik 65.era) arautzen du zer zehapen-araubide espezifikoki aplikatu behar den lege organiko horretan aurreikusitako betebeharrak betetzen ez direnean. Lege Organiko horren artikuluetan, egindako arau-hausteengatik erantzukizuna zein subjektuk duten azaltzen da, kasu batean egitate bat arau biren edo gehiagoren arabera kalifikatu ahal denean arauen konkurtsoaren arauak zehazten dira, arau-hausteak tipifikatzen dira, garrantziaren arabera arinak, astunak edo oso astunak izan ahal direla eta, azkenik, ezarri ahal diren zehapenak ezartzen dira eta arau-hausteen nahiz zehapenen preskripzio-epeak eta iraungipen-epeak azaltzen dira.

Lege Organiko hori urratzeagatik ezarri ahal diren zehapenen zenbatekorik txikiena 6.000 euro izango da arau-hausterik arinenarengatik, eta handiena 1.000.000 euro jokabiderik larrienarengatik. Gainera, Administrazio eta Institutuzio Publikoei ez zaie hemen ere zehapen ekonomikorik ezarriko.

Lege-aurreproiektuaren III. kapituluan Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak eskatzen dituen alderdi berri batzuk jasotzen dira.

Hala, **subjektu erantzuleen katalogoa handitzen da**, ez baitira soilik aruaren aplikazio-eremuan (2. artikulua) zerrendatzen diren subjektuak, tratamenduaren eragile edo arduradun gisa jarduten dutenean; aitzitik, horiez gain, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak onartutako jokabide-kodeak gainbegiratzeko entitateak eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak egiaztatutako ziurtapen-entitateak ere agertzen dira. Xehapen hori guztiz beharrezkoa da kontuan hartuta Erregelamenduak kontrol-agintaritzari lehenago aipatu diren entitateen gainean esleitzen dizkien eginkizun berriak.

Arau-hausteak zehazteko, berriz, ezinbestean jo behar da Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean, 3/2018 Lege Organikora eta 7/2021 Lege Organikora, testuak 25.1 artikuluan jasotzen duenez.

Halaber, aurreproiektuan preskripzioa eteteko modua arautzen da, abiapuntutzat hartuta Konstituzioaren arabera ustezko arau-haustea jakin behar duela zein egitate egozten zaion.

Zehapenei dagokienez, testuan, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoan bezalaxe, zehapen-araubide diferentea ezartzen da, kontuan hartuta arduradunaren, eragilearen, gainbegiratze-entitatearen edo ziurtapen-entitatearen izaera juridikoa publikoa ala pribatua den.



Alde horretatik, testuaren 26. artikuluan izaera juridiko pribatua duten enteei ezarri beharreko **zehapen** edo neurriak (isunak) jorratzen dira, eta 27. artikuluan euskal Administrazio, Entitate eta Instituzio Publikoei ezarri beharrekoak (ohartarazpena). Azken kasu horretan, beraz, ez dago zehapen ekonomikorik, baina bai ospe-zehapen bat, agintari, goi-kargudunei eta zuzendariari egotzi ahal zaizkien arau-hausteen kasuetan larriagoa dena, baldin eta egiaztatzen bada behar bezala artatu ez diren txosten teknikoak edo gomendioak daudela. Azken kasu horretan, ohartarazpenaz gain, kargu-hartze publikoa (EHAA-n argitaratzea) xedatzen da erantzule den kargudun, agintari edo zuzendariarentzat.

Testuak dakarren beste alderdi berri bat, garrantzi handikoa, **goi-kargudunen, agintarien eta zuzendarien zehapen-araubidea** da; horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikodunen eta behin-behineko langileen Etika eta Jokabide Kodearen mende egonez gero, ebazpena era berean Etika Publikorako Batzordeari igorriko zaio. Xedapen berri-berri hori goraipatzekoa da. Xedapen horren bidetik kontuak emateko irizpide jakin bat txertatzen da, zeinak kargua kentzea edo kargutik baztertzea ekar baitezake.

Aurreproiektuan **publizitateari buruzko bi manu** jasotzen dira, bi arrazoi diferenterengatik: 7. artikulua eta 28. artikulua. 7. artikulua gardentasun-printzipioak berezko duen azterketa publikoarekin lotzen da; 28. artikuluan azaltzen den publizitateak lotura estuagoa dauka tipikotasun-printzipioa betetzearekin, zehapen-arloan oinarrizkoa den horrekin.

Hala, manu horretan arau-haustearen nortasuna, arau-haustea eta milioi bat eurotik gorako zehapenen zenbatekoa eta agintariak, goi-kargudunek eta zuzendariak egindako arau-hausteen ondoriozko ohartarazpenak EHAA-n argitaratuko direla xedatzen da. Publizitate hori (III. kapituluan –«Zehapen-araubidea»– agertzen dena), azken batean, zehapen gehigarri bat da eta, beraz, legeak hala ezarri behar du. Horrenbestez, gure ustez, testuan txertatzea egokia da.


Testuan **preskripzioari** buruz jasotzen diren epeak estatuko legean ezartzen diren berberak dira.

IV. KAPITULUA

Aurreproiektuaren IV. kapituluan datuak babesteko arauak urratuz gero erabili beharreko prozedurak arautzen dira.

Testuan hiru prozedura ezartzen dira:

- 1) Erregelamendu Orokorraren 15.etik 22. artikulura artekoetan eta 7/2021 Lege Organikoaren 21.etik 23.era artekoetan jasotako eskubideak egikaritzeko eskabideei jaramonik ez egitearekin edo behar bezala jaramon ez egitearekin lotutako prozedurak.
- 2) Datuen babesaren arloan arau-hausterik egin den ala ez zehaztea helburu duten prozedurak.
- 3) Mugaz gaindiko prozedurak. Horietan, agintaritza nagusi edo agintaritza interesdun izan daiteke Datuak Babesteko Euskal Agintaritza.



2022 MAR 02



2022 MAI. 02
MAY. 02

Iz./Fdo.:

Lehenengo bi prozedurak bat datoz eskubide-babesaren prozedura ezagunarekin, bai eta zehapen-prozedurarekin edo arau-haustea deklaratzeko prozedurarekin.

Prozeduren artean hirugarrena, **mugaz gaindiko prozedura**, Erregelamendu Orokorren bidez jasotako berrikuntza oso garrantzitsua da, eta izapideak arautzeko modua nabarmen baldintzatzen du, geroago aztertuko dugunez.

Erregelamendu Orokorren helburuetako bat zen Europar Batasunean oinarritzko eskubidearen araudi harmonizatu bat ezartzea, Zuzentarauak eragindako arau-zatikatzea eta Europan pertsonen pribatutasuna arautzen duten oinarritzko printzipioen interpretazio diferenteetatik ondorioztatutako asimetriak saihesteko. Erregelamenduan xedatzen diren koherentzia- eta lankidetzeta-mekanismoek arauak modu uniformean aplikatzeko beharrezana zuzenbide positibora ekartzen dute, hainbat estatutako kontrol-agintaritzek modu aktiboan parte hartzen dutela.

Erregelamendua aplikatzearen ondorioz, beraz, prozedura-mota berri bat sortzen da, **mugaz gaindiko prozedura**, zeinean, aurreproiektuak egoki agintzen duenez (32. artikulua), Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak zehaztu behar baitu agintaritzaren nagusi ala agintaritzaren interesdun den eta, interesdun izanez gero, berehala erreklamazioaren berri eman agintaritzaren nagusi den Batasuneko beste estatu kide bateko agintaritzari.

Mugaz gaindiko prozeduran kontrol-agintaritzaren bategi bakoitzak esku hartu behar izateak (areago, baliteke Datuak Babesteko Europako Lantaldeak esku hartu behar izatea) ezinbestean eragina dauka prozedurak arautzeko moduan.

Baieztape horren ebidentzia bat da testuaren 33. artikuluan xedatzen den **aurretiazko onarpenaren izapidea** jaso izana; izapide hori, azalpen-memoriak dioenez, ezinbestekoa da, betiere beharrezkoa baita aztertzea Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren eskuduna den ala ez, prozedurarekin aurrera jarraitu baino lehen; gainera, mugaz gaindiko prozedura izanez gero, zehaztu beharko da zein den agintaritzaren nagusia eta zeintzuk agintaritzaren interesdunak, eta auzi hori ebaztea ez da beti erraza izaten.

Horregatik, gure ustez, egokia da testuan jasotzea aurretiazko onarpena, zeinari buruzko erabakia hiru hilabeteko epean hartu behar baita (3/2018 Lege Organikoan Datuak Babesteko Espainiako Agentziarentzat ezartzen den epe berbera); halaber, gure ustez, oso egokia da xedatzea ezen, aurretiazko onarpenari buruzko ebazpena epe barruan hartu ezean, izapideek jarraitu egingo dutela interesdunak adierazitako uziari dagokion bidetik eta, horrenbestez, kontrol-agintaritzaren jarduerarik ezak erreklamatzailerari kalterik egingo ez diola.

Izapide berri horri buruzko arauak ezartzearen bidetik **izapideak ez onartzeko arrazoiak** ere arautzen dira. Gure ustez, arrazoi horiek behar bezala arautzen dira testuaren 34. artikuluan. Arrazoi horietako batzuek zerikusia dute herritarrek oinarritzko eskubidearen berri ez izatearekin (hori gertatzen da erreklamazioa datuen babesari buruzkoa ez denean), beste batzuetan erreklamazioen bidez frogatutako ahalegin eskasa edo deuseza egitearekin eta, beste batzuetan, eskubidea abusuz edo gizartearen aurka egikaritzearekin (abusuzko erreklamazioak).

Era berean, gure ustez, egokia da manu horretan xedatzea **ohartarazi** egin behar dela, horri esker zaintzen baita estatuaren ius puniendia, benetan hala merezi duten erreklamazioen aurrean.

Eskubideak baliatzearen ondoriozko erreklamazioen kasuan jarraitu beharreko prozedurei dagokienez, aurretiaz izapidetzeko onartzearen izapidea ezartzeaz gain,



lehendik zegoenaren antzeko prozedura bat arautzen da, baina bereziki azpimarratzen da ukituari entzunaldia eman behar zaiola eta, ezinbestean, horren aldeko iruzkina egin behar dugu. Ebazteko sei hilabeteko epea zehatzeko ahala egikaritzen deneko prozedurena baino dezente laburragoa da, eta hori zentzuzkoa eta egokia da. Epea igarotakoan ebazpenik egon ezean, **isiltasuna negatiboa** izango da, eta hori arrazoizkoa iruditzen zaigu, kasu horretan jarduerarik eza ezin baitzaio tratamenduaren arduradunari egotzi, baizik eta kontrol-agintaritzari.

Zehatzeko ahala egikaritzeko prozeduren arloan, aurretiaz onartzeko izapideaz gain aurretiaz ikerketa-jarduketa batzuk ezartzen dira. Jarduketa horiek gehienez ere hamabi hilabete iraungo dute, eta epe luze horren zergatia mugaz gaindiko prozeduraren konplexutasuna da. Izapideei dagokienez, Euskadin zehatzeko ahalaren egikaritzapenari buruzko araudira jotzen da, baina prozeduraren izapideen iraupen-epearen aldetik araudi horretatik aldetzen da, sei hilabetetik bederatzira luzatzen baita, era berean Erregelamendu Orokorrak behartuta.

Azkenik, egokitzen jotzen dugu 39. artikuluan azaltzen diren kautela-neurriak jaso izana, jokabide arau-hauslea etetea eta kalteak minimizatzea xede baitute neurri horiek.

XEDAPEN GEHIGARRIAK, XEDAPEN IRAGANKORRAK ETA AZKEN XEDAPENAK

Aurreproiektuaren azken zatiak bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu.

Lehenengo xedapen gehigarriak dioenez, IV. kapituluaren beren-beregi araututa dauden berariazko prozedurak bazter utzita, administrazio-prozedura arautzeko legeriak eraenduko du Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren jardura. Xedapen hori zentzuzkoa da, agintaritzaren izaera juridiko-administratiboa kontuan hartuta.

Bestalde, **bigarren xedapen gehigarria** ezinbestekoa da, zehazten baitu Datuak Babesteko Euskal Bulegoa aipatzen denean ulertu behar dela Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren aipatzen dela, alegia instituzioaren izen berria, Erregelamenduak erabiltzen dituen izendapenen ildotik eta Batasuneko araudiak esleitzen dizkion eginkizun eta ahalen garrantziarekin bat egitearren.

Lehenengo xedapen iragankorrean azaltzen denez, instituzioaren gaur egungo estatutuak indarrean jarraitzen du etorkizuneko legearen aurka ez doan guztian; dena dela, agerikoa denez, lege-testua onartutakoan, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren estatutu berria prestatzeari ekin beharko zaio. Gainera, eta lehenengo xedapen iragankorrean aurrera eginez, etorkizuneko legea indarrean jartzen denean instituzioa zuzentzen duen pertsonari emandako maila berria agintaldia iraungi ondoren ere aplikatzea egokitzen jotzen da.

Bigarren xedapen iragankorrek legea indarrean jarri aurretik hasita dauden prozedurei edo data hori baino lehenago aurretiazko ikerketa-jarduketak hasiak dituztenei aplikatu beharreko araudia ezartzen du.

Gai horretan egokitzen jo liteke zehapen-arau kaltegarrien atzeraeraginik ezaren printzipioa aipatzea.



2022 MAI 02

iz./Pda.:



Xedapen indargabetzaileari dagokionez, segurtasun juridikoko arrazoiengatik komenigarria da beren-beregi indargabetzea 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, bai eta lege horretan xedatutakoaren aurka doazen edo bertan jasotakoarekin bateraezinak diren edo kontraesanean dauden maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak. Ulertu behar da **xedapen indargabetzaile** hori aplikatzeak ez duela ezertan ere galarazten testuaren lehenengo eta bigarren xedapen iragankorretan ezarrita dagoen araubide iragankorra.


Azken xedapenetatik lehenengoaren arabera, gaitasuna ematen zaio Eusko Jaurlaritzari Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren Estatutua onartzeko. Azken xedapenetatik **bigarrenak**, berriz, etorkizuneko legea indarrean jartzeko vacatio legisa desagerrarazten du. Oinarrizko eskubidearen funtsezko edukia, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean jasota dagoen hori, 2018ko maiatzaz geroztik indarrean dago eta, horrenbestez, azken xedapenetatik bigarrenak dioena arrazoizkoa da.

ONDORIOA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak oso positibotzat jotzen du txostenaren xede den lege-aurreproiektuaren testua. Proiektatutako araua beharrezkoa da arlo horretako arau-esparru berrira egokitzeko; horrez gain, aukera ona da Euskal Autonomia Erkidegoan datu pertsonalen babesa garatzeko eta bultzatzeko, bide batez babes horren aplikazio-eremua zabaltzeko eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren zeregina indartzeko, oinarrizko eskubide horren bermatzaile den aldetik.

Soil-soilik proposatzen da arauaren izenburua aldatzea eta lege-testuan xedapen bat gehitzea auzietan agintaritza ordezkatu eta defendatzeari buruz, eta horrekin batera testuaren azken xedapenetatik bigarrenari eta xedapen indargabetzaileari buruz aipatu diren xehetasunak ere txertatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 25a


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Dokumentu elektronikoren paperko kopia da.
Es copia simple en papel de documento original.
2022 MAR. 02
Margarita Uria Etxebarria

tz./Fdo.:

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria